



AMEZKETAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN AGIRIA

Hiri antolaketako plan orokorrek -aurrerantzean HAPO- nahitaez bete behar dute ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura; horrela xedatzen baitute ondorengo arauak: 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, 6. artikuluan; 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorrak, 41. artikuluan eta I A eranskinean; eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 4. artikuluan.

Zentzu horretan, Amezketako Udalak hasiera eman dio Hiri Antolaketako Plan Orokorra izapidetzeko prozesuari; eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 18. artikuluan xedatutakoa betez, Udalak, 2018ko abuztuaren 9an bidalitako idatziaren bidez, eskatu du Hiri Antolaketako Plan Orokorren ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egiteko prozedura abiarazteko, eta horretarako bidali ditu ingurumen ebaluaziorako hasierako dokumentu estrategikoa eta HAPOren aurrerapen agiria.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak bateratze aldera, ingurumen organoak irismen agiri bat egin behar du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen hedadura, xehetasun eta zehaztapen maila finkatzeko. Aldez aurretik, dena den, kontsulta egingo zaie ukitutako administrazioei eta pertsona interesdunei.

Horrenbestez, 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, eta 22/2016 Foru Dekretuak, ekainaren 19koak, xedatutakoarekin bat eginez, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Amezketako Hiri Antolaketako Plan Orokorren Irismen Agiri hau eman du, zeina baita 211/2012 Dekretuak 10. artikuluan aurreikusten duen erreferentziako agiria.

1.- AMEZKETAKO HAPOren PROPOSAMEN NAGUSIAK

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari hasiera emateko Amezketako Udalak bidalitako dokumentazioa bi agiriz osatuta dago, batetik, aurrerapena, eta, bestetik, hasierako agiria, zeinak jasotzen baitu, gainera, eskaera inprimakia (211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, V. eranskina).

Plangintza orokor berriaren helburu nagusia da **berraztertzea nola txertatu daitekeen Amezketa bere natura eta lurralde ingurunean**, zailtasun sozio-ekonomiko larriak dituen eredu erdi zaharkitua modernizatuz eta egungo gizartearen beharretara egokituz, **gainbehera demografiko iraunkorrari buelta emateko**. Horretarako, nahitaezkoa da **eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzea**, gaur egun ia-ia *Papelera Aralar* enpresaren inguruan bakarrik oinarritzen baita, eta lehen sektorea eta zerbitzu sektorea bultzatzea natura inguruneak eskaintzen dituen potentzialtasunak baliatuz. Ildo horretan, garrantzitsutzat jotzen da antolaketa eremuen **kalifikazio globalean erabilera mistoak** sartzea, eta **nolabaiteko malgutasuna ematea onartuko den plangintzako erabileren sistematizazioari**.

Hori lortzeko, aurrerapen agiriak 4 antolaketa hautabide planteatzen ditu, hala, 0 hautabidean proposatzen da gaur egungo Hirigintza Arauen aurreikuspenak finkatzea, eta 3. hautabidean, berriz, indarrean dagoen lurralde ereduari zuzenketa zorrotzak egitea; tarteko neurriak 1. eta 2. hautabideetan jaso. Nolanahi ere, kontuan izan behar da hautabide horietako bakar bat ere ez dela eredu itxi bat, eta horietan jasotako



proposamen ezberdinak konbinatu daitezkeela, planteatutako erronkei erantzungo dien eredu bat hautatu arte.

Hautabide horien arteko desberdintasunei dagokienez, erabilera mota bakoitzari zuzendutako azaleraz ari garela, bizitoki eta jarduera ekonomikoetarako helburua duten areen batura gutxituz doa 1. hautabidetik 3. hautabidera, 0 hautabidearen aldean; baina horrekin batera ez da diferentzia nabarmenik ikusten jarduera ekonomikoen kasuan proposatutako eraikigarritasunean. Alabaina, aurreko gutxitze hori konpentsatzeko, ekipamendu, azpiegitura, zerbitzu eta espazio libreei zuzendutako azalaren batura askoz handiagoa da 1, 2 eta 3. hautabideetan, 0 hautabidearen aldean. Nahiz eta diferentzia hori txikiagoa izan 2. hautabidearen kasuan, azalera txikiagoa gordetzen baitu espazio libreetarako. Azken emaitza da azalera urbanizagarria 1. hautabidetik 3. hautabidera gutxitzen badoa ere, horietako edozeinetan 0 hautabidekoa baino handiagoa dela.

Hautabide horietako bakoitzaren *hiri-lur eta lur eraikigarrietarako proposamen nagusiei* dagokienez:

- **0 hautabidea** Indarrean dauden *Hirigintza Arauetan ezarritako antolaketa orokorrek* bat dator. Bertan jasotako aurreikuspenen garapen maila oso txikia izan da –programatutako 225 etxebizitzetatik % 10 ere ez da garatu-; gainera, ez da moldatzen hirigintza legedira (2/2006 Legea) eta legea onartu zenetik indarrean sartu den lurralde plangintzara eta alorreko plangintzara. Hautabide honetan 183 etxebizitza berri proposatzen dira, baina aurreikuspen horrek ez dauka Lurralde Antolaketako Jarraibideen hasierako berrikuspenean ezarritako bizitoki kuantifikazioaren bermea ez eta aurrerapenaren memorian jasotako kalkuluena ere.
- **1. hautabidea** Aurreikusitako bizitoki programa 100 etxebizitzakoa izango litzateke, 0 hautabidearen aldean etxebizitza berrien aurreikuspenean murrizpen orokor bat eginez eremu desberdinetan, Ugarten izan ezik, non 12 etxebizitza berri izatetik 22ra pasatzen baita, bertako biztanleek auzoaren hazkunde endogenoa bermatzearen egindako eskaerari erantzunez. Bestalde, proposatzen da Herri-Eskola Larraitz-Bidea eremura aldatzea, horrela, azken eremu hori zabaldu egiten da hirugarren sektoreko jarduerak ere hartzeko. Alegialde eremua bizitoki erabilera izatetik erabilera mistoa izatera pasako da (etxebizitzak eta zerbitzuak). Jarduera ekonomikoei dagokienez, Ola eremuaren –orain Lapatza- azalera murriztu egiten da eta hirigintza eremu berri bat sortzen da, Olalde izenekoa, nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen eraldaketa, herritarrentzako zerbitzuak, hostalaritza eta abar hartuko dituen, industria jarduera astunak kanpoan utziz.
- **2. hautabidea** 1. hautabidearen aldean, zertxobait handitzen da bizitoki programa - 126 etxebizitza-, nahiz eta erabilera horietarako lur azalera zerbait murrizten den - 232 m² inguru gutxiago-. Jarduera ekonomikoetarako eraikigarritasuna 0 hautabidean aurreikusitakoaren ia % 100era iristen da, baina partzelak txikiagoak dira eta sakabanatutakoak daude, eta erabilerak bateragarriagoak dira bizitoki erabilerarekin. Bestalde, finkatu egiten dira 1. hautabideak egiten dituen zehaztapenak Hirigunea, Alegialde, Olalde eta Lapatza eremuetarako, nahiz eta azken horretan are gehiago murrizten diren espazio libreetako zerbitzu orokorretarako den azalaren mugak. Ugarte eremuan, 1. hautabidearen aldean, are gehiago handitzen dira bizitoki erabilerako aurreikuspenak -22 etxebizitza berri izatetik 40 izatera pasatzen da-. Ibaiaren eskuinaldean bizitoki programa bat garatzea proposatzen da, horren barruan sartuz ezkerrean dauden 6 etxebizitza bertan kokatzea, eta ekipamendu komunitarioetarako eta espazio libreetarako lurak. Zabalkundea izeneko hirigintza eremu berri bat sortzen da, Jauregi eremuaren zati bat hartzen duena, baina kendu egiten da aurreikusita zegoen bizitoki programa eta, horren ordez, ekipamendu komunitarioetarako proposatzen da, zehazki, Herri



Eskola berria eraikitzeko. Bestalde, Larraitz bidea eremuak orain duen azalerarekin jarraituko du, baina kasu honetan nagusiki bigarren bizileku izango diren etxebizitzetarako erabiliko da. Bukatzeko, Insausti-Zubillaga eremuaren mugak aldatzen dira eta Jauregi-Zubillaga izena izango du. Bertan 8 etxebizitza egitea proposatzen da, gaur egun dauden industria jarduerak beste leku batera eramateko eta gelditzen diren lurra espazio libreetarako uzteko.

- **3. hautabidea** Erdira jaisten da gaur egungo bizitoki programa (94 etxebizitza), 0 hautabidearen aldean. Aukera honetan Herri Eskola berria Ergoene eremuan kokatuko da. Horrez gain, planak 1. eta 2. hautabideetarako 0 hautabidearen aldean markatzen duen joerari eutsiz, eremu honek gehiago murrizten du bere azalera, baita proposatutako etxebizitza berrien kopurua ere; hala, 0 hautabidean proposatutako 44 etxebizitzetatik 8 etxebizitzetara pasatzen da hautabide honetan, hiri bilbea ordezteko eta/edo osatzeko eragiketak bakarrik finkatuz. 2. hautabidean Papelera, Hirigunea, Alegialde, Jauregi-Zubillaga eta Olalde eremuëtarako egindako aurreikuspenak mantendu egiten dira. Modu nabarmenean murrizten da Larraitz-Bidea eremuaren azalera (1. eta 2. hautabideetan zituen 25.319 m²-tik 10.987 m² izatera pasatzen da), eta ezabatu egiten dira aurreikusita bai baina eraiki gabeko aprobetxamendu guztiak. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzen da 2. hautabideko Zabalkundea eremua. Lapatza eremuaren azalera are gehiago murrizten da, 2. hautabidekoaren aldean, eta aprobetxamenduak ibaiaren eskuinaldean pilatzen dira, ezkerrekoa espazio libre publikoetarako utziz. Azkenik, garapen ausartagoa proposatzen da Ugarte eremuan, udalerriko bizitoki ahalmenaren gehiengoa bertan kontzentratuz, kasu honetan auzoaren hazkunde endogenoari erantzuteko nahiz bigarren bizitoki izateko bideratuko dena.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da aurkeztutako hautabideen arteko funtsezko diferentzia ez dela horietako bakoitzak udalerriri esleitzen dion bizitoki ahalmena, baizik eta etxebizitza kopuru handi bati bigarren bizitoki izaera ematea eta horrek plangintzan dituen eraginak.

Azkenik, HAPOn *lurzoru urbanizaezineko proposamenak eta hautabideak* honela laburbildu daitezke:

- Antolaketa kategoriak honako hauek izango dira:
 - *Babes bereziko eremua*: horren barruan sartzen dira baso naturalak eta erdi-naturalak, hala nola haritz, pago eta haltz kantauriarren baso autoktonoak. Lehentasuneko interes komunitarioko habitatak ere sartzen dira.
 - *Nekazaritza eta abeltzaintza eremua*: bi azpikategoria bereizten dira, *Balio estrategiko handikoa eta Trantsiziozko landa paisaia*.
 - *Baso eremua*. Oro har, basoz osatutako lurzoruak.
 - *Ibai ibilguak eta ibaiertzetako babes eremua*.
 - *Ingurumen hobekuntza*: espezie inbaditzaileak eta lurzoruaren higadura handia duten lursailak nagusi diren eremuak.
 - *Sistema orokorrak*: zuzkidura-erabilera duten lurra, hala nola espazio libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazioko azpiegiturak eta sareak jartzekoak.
- Baldintzatzaile gainjarriak honako hauek izango dira:
 - *Naturagune babestuak*: horren barruan sartuko dira *Aralar Parke Naturaleko eta Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Eremuko* lursailak.
 - *Fauna babesteko eremuak*.
 - *Herri onurako mendiak*.



- *Interes geologikoko eremuak*
 - *Korridore ekologikoak*: horien barruan sartzen dira *Konektibitate ekologikorako korridoreak eta Tokiko konektibitate ekologikorako barrerak*.
 - *Paisaia babesteko eremuak*. Udalerria ikusizko bi arrotan banatuta dago (Amezketeta eta Bedaio), eta bi arro horiek *Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoaren* barruan daudenez, baldintza hau udalerriri osora hedatuko da. Ondorioz, egokia dirudi paisaiaren integrazioari buruzko azterketak eskatzea udalerrian aurreikusten diren hiri garapen guztietan.
 - *Kultura ondarea*.
 - *Urpean gera daitezkeen eremuak*. Horien barruan sartzen dira *Lehentasunezko fluxuko eremuak eta 10, 100 eta 500 urteko errepika-denborako eremuak*.
 - *Lurrazpiko urak babesteko eremuak*.
 - *Eremu higagarriak*.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*
 - *Eremu akustikoak*.
- Altunegi auzoan, San Martin ermitaren inguruko proposamenak:
 - Eremu hori landagune gisa deklaratzeko, 7 hektarea inguruko azalerarekin. 1. eta 2. hautabideetan, baina ez 0 eta 3. hautabideetan.
 - *Kanpin* motako turismo azpiegitura bat jartzeko, 30.345 m²-koa. Proposamen hori 2. eta 3. hautabideetan jasotzen da; aldiz, 0 eta 1. hautabideetan Espazio Libreen Sistema Orokorra mantentzen da.
 - Bedaio (GI-3711) eta San Martingo errepideak Altxai eta Urkulapartetik barrena lotzea, ez GI-2133 errepidearen ordezkotzat izateko, baizik eta bigarren mailako ibilbide izateko.

2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Amezketako Udalaren eskaera jaso ondoren, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak kontsultak egin zituzten ukitutako administrazioei eta interesdunei, horrela aurreikusten baitu 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 19. artikuluan, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 9. artikuluan. Fase horretan, honako entitate eta erakunde hauei egin zaie kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Bide Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde ordezkariak.
- Kantauriko Ur Konfederazioko Uren Ikuskatzailak.
- Gipuzkoako Uren Kontsultak.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Tolomendi
- Tolosaldea Garatzen
- Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.
- Orendaingo Udala.
- Tolosako Udala.
- Abaltzisketako Udala.
- Eguzki talde ekologista.
- Itsas Enara Ornitologi Elkarteak.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarteak
- Aranzadi Zientzia Elkarteak.
- Landarlan Ingurumen Elkarteak.
- Zumadi Eskola.

Era berean, hasierako agiria eskura egon da GFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritar guztiek bidezkoztat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, ondorengoak jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza. Haren izenean Eusko Trenbide Sareko Plangintzako eta Proiektuetako zuzendariak erantzun du, eta jakinarazi du HAPOk ez duela inolako eraginik gaur egungo trenbide lineatan, ez eta aurreikusitakoetan ere.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondareko Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du interesa duten elementuen zerrendak eguneratzea Kultura Ondarearen Katalogoan, zeina jasota baitago Hasierako Ingurumen Agirian eta Plan Orokorren Aurrerapen Agirian bertan ere. Era berean, gomendatzen du Katalogoan sartuta dauden elementuen gaur egungo edo proposatutako babes araubideari buruzko informazioaren xehetasun maila hobetzea.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak uholdeak, lurrikarak eta baso suteak izateko arriskuen berri eman du. Ez da arrisku teknologikorik detektatzen.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du balorazio positiboa ematen zaiola planteatutako lurzoru urbanizaezinen antolaketari. Hirigintza Araudiak erabilera araubide bat ezarri beharko du antolaketa kategoria bakoitzerako, Nekazaritza eta basogintzako lurraldearen arloko planean xedatutakoaren arabera; eta berriaz jaso beharko du Nekazaritza eta Abeltzaintza eremuetako eta Balio estrategiko handiko landazabal eremuetako lurzoru urbanizaezinei dagokien araudia. Halaber, baldintzatzaile gainjarri gisa jaso beharko ditu Herri onurako mendiak eta mendi babesleak. Lurzoru urbanizaezinean eraikin berriak eraikitzeke baldintzei dagokienez, Nekazaritza eta Basogintzako LAPeko 11, 12 eta 13. artikuluetan xedatutakoa bete beharko da. Bestalde, adierazten du proposatutako hautabideetan (0 hautabidean izan ezik) aurreikusitako garapen eremuek dakartela zenbait lurzoru eta nekazaritza erabilera okupatzea, horietako asko gainera Balio Estrategiko Handiko azpikategoriakoak - hautabide bat edo bestea hautatzen bada, horrelako lurzoru moten % 19 eta 23 artean okupatuko da Amezketan- eta Trantsizioko Landa Paisaia



azpikategoriakoak. Aurrekoa ikusita, gomendatzen da plangintzaren ondorengo faseetan berriz aztertzea aurreikusitako okupazioak. Nolanahi ere, ebaluatu beharko litzateke nekazaritza sektoreak izango duen erasana, oinarritzat hartuta Nekazaritza eta Basogintzako LAPek xedatzen duena. Gainera, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, balio agrologiko handiko lurren inguruan aurreikusitako proiektu edo egintza orori behin betiko onarpena eman baino lehen, nahitaezkoa da nekazaritza gaietan eskumena duen foru organoak txostena egitea.

- Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du ezen, ibilguen mugakide diren garapen berriko eremuei eta berroneratzeko proposatzen diren eremuei dagokienez, beharrezkoa dela ahalik eta espazio libre gehien izatea (berdeguneak) ibaien inguruan. Gogorarazi du ibai eta erreka bazterrak antolatzeako LAPak ibilgu guztiak ukitzen dituela eta, ondorioz, garapen berriko eremuei eta berroneratzeko proposatutako eremuei dagozkien fitxetan jaso beharko dira LAP horrek ezartzen dituen tarteak eta zehaztapenak. Era berean, dokumentazio grafikoan agertuko dira tarteak eta hidrografia, lurrazpian estalita doazen zatiak ere jasota. Halaber, indarrean dagoen araudia oinarri hartuta, proposatutako garapen eremuen urpegarritasun arriskuen berri eman du, onargarriak ez direnak eta/edo erabilera mugapenak dituztenak definituta. Hornidurari dagokionez, positibotzat jotzen du ibilguetako eta ur-bilketako puntuetako uraren kalitatea babesteko proposamena, lurzoru urbanizaezineko antolamenduaren bidez. Erantsi du sartu beharko direla gaur egun dauden hornidura sareak eta azpiegiturak, eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioari txostena eskatu beharko zaiola, azpiegitura horiek nahikoak direla zuzitzeko. Saneamenduari dagokionez, Amezketari ibaiaren arazoa azpimarratu du, behar beste araztu gabeko isurketak gertatzen baitira, eta horrek galarazten duelako 2021erako ingurumen helburuak betetzea. Horrenbestez, jakinarazten du HAPOK bere ingurumen memorian, justifikatzeko memorian eta azterketa ekonomiko finantzarioan osatu beharko duela saneamenduaren konponbide integrala eta erantsi beharko dituela Kutsadura Murrizteko Planaren jarduerak eta aurreikuspenak, baita kargak pixkanaka murrizteko konpromiso eta agertoki desberdinak ere.
- IHOBEk jakinarazten du ezen, berak bidalitako dokumentazioan, kontuan hartu dela zenbait lurzatatitan, historikoki, gauzatu izan direla kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak. Era berean, azaltzen du zer betebeharrak ezartzen dituen 4/2015 Legeak, lurzoru kutsatzea saihestekoak eta kutsatutakoa garbitzekoak, inbentariatutako lekuetan.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak adierazi du ez dizkiola oharrik egiten HAPOrri.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak egokitzen du lurzoru urbanizaezinen antolaketari buruz aurrerapenean egiten den planteamendua. Soilik adierazi du babes bereziko kategorian sartu ez diren harizti/baso mistoko sail batzuk identifikatu direla, eta, ondorioz, horien mugaketa berrikusi beharko dela. Era berean, gomendatzen du GI-2133 errepideko istripu ugari zatia baldintzatzaile gainjarri gisa jasotzeko. Planteatutako garapen berriei dagokienez, modu positiboan baloratzen da aztertutako hiru hautabideek proposatzea indarrean dauden arauetan aurreikusitako hiri-lurzoruaren/lurzoru urbanizagarriaren azalera nabarmen murriztea, bai jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren bai bizitegi lurzoruaren kasuan. Horrez gain, uste du natura ondarearen gaineko inpaktu nagusien inguruko hurbilketa egokia egin dela, nahiz eta Ingurumen Azterketa Estrategikoak ondorengo puntuetan sakondu beharko duen:



- Amezketan ibaiaren ibaiertzeko basoan sor daitezkeen erasanak. Ibai ertzetako hirigintzako eremuen antolaketak lehentasuna eman beharko dio ibaiertzeko basoa babesteko duen antolaketari, eremu hori espazio libreetarako utziz. Hori ezinezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak hartu beharko dira.
- Larraitz-bidean aurreikusitako garapena (1. eta 2. hautabideak) Aralarko Kontserbazio Bereziko Eremuaren barruan dagoenez, ebaluazio egokia egin behar da, 42/2007 Legeak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak, 46.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irismen agiri hau egin ondoren erantzunen bat jasoko balitz, Amezketako Udalera bidaliko da ahalik eta azkarren, HAPOa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa egiterakoan kontuan hartua izateko.

3.- INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAU ITURRIAK

Hiri Antolaketako Plan Orokorrak, udal lurraldea modu integralean antolatzeko oinarritzeko tresna den aldetik, hirigintza jarduerak eta azpiegiturak eragindako ingurumen inpaktu kaltegarriak minimizatzeaz gain, udalerriko ingurumen kalitatea hobetzen lagundu behar du, baldin eta ingurumen alderdiak behar bezala txertatzen badira behintzat.

A. HAPOren ingurumen helburu estrategikoak, gutxienez honako ingurumen helburu eta irizpide hauei begira ezarriko dira:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gaintik; eta horretarako, ingurumen alderdiei dagokien garrantzia ematea HAPO egiterakoan. Horrez gain, ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduerak planteatu eta txertatuko dira planean.
- Lurzoruaren erabilerak esleitzerakoan, natur eta nekazaritza baliabideen kalitatea eta urrakortasuna kontuan hartzea, eremu batzuen eta besteen ingurumen kalitatea eta aurreikusitako erabilerak hartzeko duten gaitasuna bezalaxe.
- Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitza, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua bakarrik mugatuz.
- Dentsitate ertain edo handia duten eta erabilerak behar bezala uztartuak dituzten hirigune trinko eta anitzak lehenetsiko dira, dentsitate txiki edo oso txikiko bizitegi-garapen berriak baztertuz. Era berean, etxebizitza bakanaren edo atxikiaren tipologia ere baztertu egingo da, hiri eredu bakan eta zehaztugabea bultzatzen baitute; gainera, tipologia horrek lur asko okupatzen du eta energia nahiz material asko kontsumitzen du.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzak eskaintza minimizatzea eta, oro har, luraren kontsumoan oinarritutako ereduak ekiditea. "Etxebizitza hutsa" okupa dadin sustatzea.
- Oraingo hiri-bilbeentzako funtzionala eta birmoldaketa bultzatzea, betiere bilbe horiek birgaituz, berregituratuz edota berrituz, eta abandonatutako eremuak berreskuratzea, lurzorua nahiz baliabideak optimizatzeako estrategia gisa.



- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera ezberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin. Mugikortasun eskaera kudeatzea, oraingo banaketa modala oinez ibiltzera, bizikletara eta garraio publikora bideratuz.
 - Gerta litezkeen hiri garapenak eta azpiegiturak aurkitzea, eta honako baldintza hauek ziurtatuko diren moduan antolatzea:
 - Natura baliabide baliotsuen gaineko eraginak minimizatzea.
 - Ur hornidurako eta saneamenduko sareak erabiltzeko aukera izatea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuz.
 - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak ezartzea.
 - Lurzoru urbanizaezina modu egokian antolatzea, nekazaritza eta basogintzako LAPean ezarritako antolaketa kategoriak erabiliz eta Lurralde Antolaketa Gidalerroetan xedatutakoari jarraituz (jarduera sustatuen, onargarrien eta debekatuen matrizea aplikatuta). Hau da, landa ingurunea zaintzea, oreka bat bilatuz ingurune horren garapen ekonomikoaren, ekosistemaren barruan dagokion helburuaren (lehengaiak hornitzea, ingurunea zaintzea...) eta ingurumen eta paisaia arloko kalitate baldintza egokien artean.
 - Paisaia faktorea plangintzan txertatzea, haren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoaren arabera.
 - Ondorio kaltegarriak murriztea baliabideen (ura, energia eta materialak), nahiz eraikuntza fasean (eraikinak, egiturak, urbanizatzeko lanak, eta abar) eta funtzionamenduan sortutako hondakinen eta kutsatzaileen balantzean; eta zikloak ixte aldera jotzea.
 - Sorburu berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko hautabidea ahalbidetzea.
 - Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horri jarraituz, ur arloan gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritako tartek eta zortasunak errespetatuko dira, oraingo eta etorkizuneko isurketei tratamendu egokia ematea bermatuko da, eta era berean, jarduketak saihestu egingo dira akuiferoak kutsatzeko arriskua erakusten duten eremuetan.
- B. Amezketako HAPO egiterakoan, aintzat hartuko dira honako dokumentu eta arau hauetan jasotako jasagarritasun irizpideak eta printzipioak:
- IHOBE. 2005. Hirigintza-planeamenduak iraunkortasun-irizpidez idazteko eskuliburua.
 - Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
 - Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko Esparru Programa (2020).
 - 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, 2., 5., 23., 25., 28., 30., 69. eta 83. artikulua.
 - 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena, 3. eta 20. artikulua.



- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 3. artikulua.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, 2. artikulua; eta 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen testu bateratua onartzen duena, 2. artikulua.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urei buruzkoa, 3. artikulua.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa, 4. artikulua.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa, 6. artikulua.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, 1. eta 2. artikulua.

C. Hauek dira irismen agiri hau egiteko garaian aintzat hartu ditugun eta Amezketa HAPO egiterakoan ere kontuan hartu behar diren ingurumen arloko arau nagusiak:

Europako araudia

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 22an emandako 92/43/EEE Zuzentaraua; habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur politiken alorrean batasun mailako esparrua ezartzekoa.
- 2006/118/EE Zuzentaraua, abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzkoa.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Estatuko araudia

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu igorpenei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen testu bateratua onartzen duena, eta berori garatzeko erregelamenduak.



- 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, honako hauen plan hidrológicoak berrikustea onartzen duena: Kantauri Mendebaldeko, Gualdalquivirreko, Ceutako, Melillaiko, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrográficoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrográficooen alderdi espainiarra.
- 20/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, Kantauri mendebaldeko demarkazio hidrográficooren eta Kantauri ekialdeko demarkazio hidrográficooren alderdi espainiarraren uholde arriskua kudeatzeko planak onartzen dituena.
- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

Autonomia erkidegoko araudia

- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, ingurumena babesteko lege orokorra.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duena, eta naturaren zaintzari buruz erkidegoan indarrean dauden gainerako araudiak.
- 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, nekazaritza eta elikagaigintza politikari buruzkoa.
- 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturalizat jotzen duena.
- 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana onesten duena.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena.

Gipuzkoako araudia

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako mendiei buruzkoa.

4.- INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. AMEZKETAKO UDAL BARRUTIKO BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK



Ebaluatuko den esparru geografikoak Planean aurreikusitako jarduerak eragingo dituzten ondorio guztiak ebaluatzeko behar hainbatekoa izan beharko du, hirigintzako jarduerak ez ezik araudi aldaketek ingurumenean dituzten eraginak ere kontuan hartuta. Oro har, Amezketako udal barruti osoa hartuko du, nahiz eta alderdi jakin batzuek udal barrutiaz gaindiko eremuan gertatuko diren eraginak aztertzea eskatuko duten; esate baterako, paisaiaren edota ur baliabideen gainean gertatuko diren ondorioak aztertu behar direnean.

Ingurumen ebaluazio hori xehetasun maila handiagoz egingo da hautabide batzuek eta besteek eragin handiko jarduketak aurreikusten dituzten eremuetan; esate baterako, hirigintza garapenak egitea aurreikusi den eremuetan.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusian jasotako informazio bibliografiko eta kartografikoa begiratu ondoren, eta beste administrazioetatik jasotako erantzunak aintzat hartuta, ingurumen interes bereziko baliabide eta eremu hauek identifikatu ditugu Amezketako udal barrutian:

- A. **Aralar Parkea eta Kontserbazio Bereziko Eremua** *Naturagune babestuak* izeneko baldintzatzaile gainjarriaren bidez babesten dira. Eremu honen antolamendua dagozkion antolamendu eta kudeaketa tresnen bitartez egingo da - 1994ko 168 eta 169 dekretuak, parke natural deklaratzekoa eta antolamendu plana onartzekoa, eta 84/2016 Dekretua, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzekoa-. Ergoene, Papelera, Hirigunea eta Larraitz-Bidea eremuak parke naturalaren eta Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugakideak dira. Lehenengo hiru kasuetan, hiritartuta dauden eremuak direnez, printzipioz baztertu egingo lirarteke Aralar parke natural eta Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eragin zuten balioen gaineko inpaktuak. Alabaina, gaur egun landa izaerakoa den Larraitz-Bidea eremuaren kasuan, garapenak inpaktu negatiboa eragin lezake. Horrenbestez, 42/2007 Legeak, abenduaren 13koak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak, 46.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ondo ebaluatu beharko lirarteke azken garapen horrek izango dituen inpaktuak, baita naturagune honen mugakide diren gainerako eremuetako (Ergoene, Papelera eta Hirigunea) inpaktuekin egon litekeen sinergia. Halaber, ebaluatu beharko dira San Martin ermitaren ingururako egindako proposamenek naturagune babestu honetan izango dituen inpaktuak: alde batetik, landagune gisa deklaratzeko, horrek ekar baitezake eraikitako azalera handitzea eta, beste alde batetik, kanpin azpiegitura bat instalatzeko aukera, zeina naturagune babestuaren barruan ez egon arren mugakide izango bailitzateke.
- B. **Baso naturalak eta erdi naturalak.** HAPOk hobekien kontserbatzen diren harizti, pagadi, haltzadi eta hostozabalez osatutako baso mistoko masak eta unadak babesten ditu *Babes Bereziko* kategorian sartuta. Alabaina, zuzendaritza honek alde aurretik egindako kontsultei Natura Ondareko eta Klima Aldaketako Zuzendaritzak emandako erantzunaren arabera, ez dira kategorian sartu haritz eta baso mistoko zenbait sail. Ondorioz, gomendatzen da baso sail horien mugaketa berrikustea, Euskadiko datu espazialen azpiegituran eskuragarri dagoen landaretza mapa oinarri hartuta. Bestalde, ahal den neurrian, kontserbazio aktiboko neurriak ezarriko dira; esate baterako, titulartasun pribatukoak diren eta balio ekologiko handia duten basoak udalaren lur ondarean sartzeko, edota lurraldea zaintzeko akordioak ezartzea, baso horiek kontserbatuko direla eta baso-masa helduagoak osatzera iritsiko direla bermatzeko.
- C. **Batasunaren intereseko habitatak.** *Babes Bereziko* kategoriaren barruan sartzen dira batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak. Oro har, Erkidegoaren interesekoak diren udaleko habitatak zaintzen eta hobetzen saiatu beharko da, ez bakarrik lehentasunezkoak direnak, zonakatzeko egokia eginda eta lurzorua erabilerak behar den moduan araututa, eta habitat mota bakoitza eta horren



kudeaketak eskatzen dituen baldintzak aintzat hartuta. Amezketa ibaiaren ertzetan dagoen ibaiertzeko basoaren (91E0*) mugakide diren hiri eremuei dagokienez, iehentasuna eman beharko zaio ibaiertzeko basoa babesteko duen antolamenduari, espazio libreetarako utziz. Hori ezinezkoa bada eta behar bezala justifikatzen bada, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak hartu beharko dira.

- D. **Hegazti nekrofagoen interes bereziko area eta Abifaunaren babes eremua, goi tentsioko aireko linea elektrikoekin talka ez egiteko eta ez elektrokutatzeko (2016ko maiatzaren 6ko agindua).** Amezketako udal barrutian abifauna babesteko bi area mota horiek daude, nahiz eta hasierako dokumentuan lehenengoa bakarrik aipatu. Area hori Aralar Parkean eta Kontserbazio Bereziko Eremuan zehar hedatzen da eta *Fauna babesteko Eremua* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babestuta dago. Bigarrena ere Aralar Parkean eta Kontserbazio Bereziko Eremuan zehar hedatzen da eta, horrez gain, beste eremu bat dauka ekialdean, Tolosako mugatik gertu. Aztertu egingo da mota horretako eremua *Fauna babesteko Eremua* baldintzatzaile gainjarriaren barruan sartu behar den edo ez, nahiz eta zati batean sartuta egon dagoeneko, Aralar Parkeari eta Kontserbazio Bereziko Eremuari dagokion azalarekin bat egiten duelako. Eremu horiek, halaber, bat egiten dute Ergoene, Papelera, Hirigunea eta Larraitz-Bidea garapen eremuekin, baina bere ezaugarriak kontuan hartuta, ez da eragin adierazgarririk izango.
- E. **Korridore ekologikoak.** Amezketako udal barrutian kokatzen da Ernio-Gazume, Aralar eta Izarraitz Aiako Harriaren eta Aralarren arteko korridorearekin lotzen dituen korridorea, baita moteltze gune bat eta istripu ugariko zati bat ere, GI-2133 errepideagatik, iparraldean. Aurrerapenean, proposatzen da loturako korridorea eta istripu ugariko zatia babestea *Konektibitate ekologikorako korridoreak* eta *Tokiko konektibitate ekologikorako barrerak* baldintzapen gainjarrien bitartez, eta egokitzen jotzen da hori, baina istripu ugariko zatia ez da irudikatuta azaltzen dagokion antolamendu planoan, beraz, akats hori zuzendu egin beharko da.
- F. **Nekazaritzarako gaitasun handiko lurrak.** Amezketako udal azalera osoarekin alderatuta, balio estrategiko handiko lurren ehuneko oso txikia da (% 2 inguru), beraz, oso garrantzitsua da hori zaintzea. Garapen berriekin aurreikusten da balio estrategiko handiko lurren % 12 eta 16 artean okupatzea, aukeratzen den hautabidearen arabera. Okupazio hori % 19 eta 23 arteraino igotzen da halakotzat jotzen bada San Martin ermitaren inguruko espazio librearen mugaketa. Aurrekoa ikusita, gomendatzen da, planeamenduaren ondorengo faseetan, berriz aztertzea aurreikusita dauden okupazioak, modu horretan bete egingo litzateke aurrerapenean azaldutako planeamenduaren helburua, hain zuzen ere nekazaritza lurrak babestu eta lehengoratzekoa. Nolanahi ere, Nekazaritza eta Basogintza buruzko LAParen 10.e artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluatu beharko litzateke nekazaritza sektorearen afekzioa, kontuan hartuta bai nekazaritza lurren okupazioa bai plangintzan jasotako proposamenek eragin dezaketene nekazaritza ustiatzearen gaineko inpaktua, eta horretarako oinarritzat hartuko da Nekazaritza eta Basogintza buruzko LAPak xedatzen duena "Planak aplikatu eta obrak edo jarduerak egitearen ondorioz nekazaritzaren sektoreak jasandako eraginaren ebaluazioa" epigrafeari buruz. Gainera, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan balio agrologiko handiko lurren inguruan aurreikusitako proiektu edo egintza orori behin betiko onarpena eman baino lehen, nahitaezkoa da nekazaritza gaietan eskumena duen foru organoak txostena egitea.
- G. **Paisaiaren kalitatea.** Aurrerapen agiriak udalerrri osoa hartzen du paisaia babesteko eremu gisa, eta udalerrian aurreikusitako hiri garapen guztietan "*Paisaia babesteko eremuak*" baldintzatzaile gainjarria ezartzen da eta paisaian



integratzearen azterlanak egitea eskatzen da. Horiei dagokienez, idazteko garaian orientazio eta gomendio modura kontuan hartuko da Lurralde Plangintzako eta Hirigintzako Zuzendaritzak prestatutako gida, hots, "Paisaia integratzearen azterlanak egiteko gida". Era berean, lurzoru urbanizaezinean eraikitze, obrak egiteko eta jarduerak garatzeko kontuan hartu beharreko jarraibide paisajistikoak txertatu beharko dira.

- H. **Mendi Publikoa.** Udalerriaren hegoaldean mendi publikoa dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroan jasota dagoenez, *Amezketako Mendia* izena duena. HAPOn aurrerapenean, *Herri onurako mendiak* baldintzatzaile gainjarriak babestuta agertzen da, eta modu horretan Nekazaritza eta Basogintzari buruzko LAPak xedatutakoa betetzen da.
- I. **Hidrologia.** Amezketako udalerritik hainbat ibilgu igarotzen dira, horietako nagusia Amezketako erreka da eta bere adarrak Bedaio, Elorrain eta Arritzaga dira. HAPOk ibilgu horietarako kontuan izan beharko duen ingurumen helburua izango da egoera ekologiko ona lortzea eta degradazio gehigarriak ez eragitea. Ingurumen azterketa estrategikoak baloratu beharko du nola eragingo dion uraren jabari publikoari HAPOn planteatzen diren jarduera hautabide desberdinen garapenak, eta neurriak proposatu beharko ditu inpaktu horiek minimizatzeke -bai ibilguen gaineko zuzeneko inpaktuak bai zeharkako inpaktuak ere, adibidez, hondakin uren isurketak eragindakoak-. Azkeneko inpaktu mota horrek, Amezketaren kasuan, garrantzi handia du, kontuan hartuta zer erantzun eman dien URA agentziak egin zaizkion kontsultei, izan ere, agentziak jakinarazten duenez, udalerriak ez dauka bere hondakin urak kudeatzeko sistema egokirik, eta horrek galaraziko du Amezketako II masaren 2021erako ingurumen helburuak betetzea; eta egoera hori are okerragoa izango da isurketa berriak gertatzen badira HAPOn proposatutako hiri garapenen ondorioz. Lurzoru urbanizaezinearen kategorizazioan, ibilgu guztiak *Ibai ibilguak eta ibaiertzeko babes eremu* kategoriaren barruan sartu behar dira. Era berean, proposatutako eremuei dagozkien hirigintzako fitxetan sartu beharko dira EAEko ibai eta erreka ertzak antolatzeke LAPen arabera utzi beharreko tartekak; eta, ahal den neurrian, ibaiertzeko zerrenda leheneratzeko eta espazio libreetarako erabiltzeko proposamenak egingo dira.
- J. **Euskal Kultura Ondarea osatzen duten ondasunak.** Aurrerapenean *Kultura ondarea* baldintzatzaile gainjarria ezartzen da. HAPOk baldintzatzaile horren bidez ezarriko dituen erabilera mugapenen helburua izango da babes egokia eskaintzea inbentariatutako kultur ondasunei, ustezko arkeologi guneei eta gune megalitikoei. Ildo horretan aintzat hartuko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak bidalitako txostena.
- K. **Interes geologikoko lekuak.** "*Euskal Autonomia Erkidegoko Geoaniztasunaren Estrategia*" delakoaren barruan, Amezketan aurkitzen dira hasierako dokumentuan aipatzen diren eta *Interes geologikoko eremuak* baldintzatzaile gainjarriaren bidez babestuta dauden interes geologikoko lau lekuak. Eremu horiei lotuta ezarriko diren erabileretan jasota egongo dira horien zaintza eta babesa ziurtatzeko eta landa garapeneko planen barruan eremu horien erabilera jasangarria bermatzeko jarraibideak.
- L. **Zarata.** Aurrerapenean *Eremu akustikoak* baldintzatzaile gainjarria ezartzen da, baina ez da bere erasan eremua erakusten planoan. Baldintzatzailea gorabehera, 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoak, 23. artikuluan xedatutakoa betez, HAPOk hartzen duen esparruaren zonakatze akustikoa egin beharko da, aipatutako dekretuaren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehazitutako eremu akustikoak kontuan hartuta; eta dokumentazio urbanistikoari zonakatze horren berri ematen duen plano bat erantsiko zaio. Nolanahi ere, etorkizunean hirigintza garapenak egikaritzea



aurreikusi den sektore edo areatan, HAPOn xehetasunez antolatuak badira behintzat, inpaktu akustikoaren azterketa egin beharko da, 213/21012 Dekretuak, urriaren 16koak, 36. artikuluan ezarritakoaren arabera

- M. Lurzoru kutsatuak.** *EAn lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoru inbentarioak eta ingurumen agirian jasotako informazioak zenbait eremu identifikatzen dituzte Amezketako udalerrian, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak dituztenak, eta horietako batzuetan hiri garapenak egitekoak dira. HAPOn aurrerapenean, eremu horiek sartzen dira *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak* baldintzatzaile bereziaren barruan. 4/2015 Legeak, ekainaren 25ekoak, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak, xedatutakoaren arabera, kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat dagoen edo egon den lurzoru baten erabilera aldatzen bada, lurzoruaren kalitatearen deklarazioa egin behar da. Era berean, eremu horietako bakoitzaren fitxa urbanistikoetan jaso beharko da kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak daudela, baita horrek dakartzan legezko betebeharrak ere.*
- N. Arrisku naturalak (urpegarritasuna eta higagarritasuna).** 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 31 b) artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen azterketa estrategikoaren barruan sartuko da hasierako dokumentuan aurkeztutako antolaketa eremuko arrisku naturalen mapa. Halaber, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu, dauden arriskuak murrizteko edo ez areagotzeko; eta proposatutako plangintzak kontuan hartu beharko ditu ingurumen arrisku horiek, erabilera eta jarduerak arautzerakoan. Hala, urpegarritasun arriskuei dagokienez, HAPOn aurrerapenak bi baldintzatzaile gainjarri ezartzen ditu: *Lehentasunezko fluxuko eremua eta 10, 100 eta 500 urteko errepika-denborako eremuak*. Baldintzatzaile horiekin lotutako erabilera mugapenak ezartzeko, kontuan hartuko da eremu urperagarrietako erabilera araubideari buruz ondorengo arauak xedatzen dutena: 449/2013 Dekretuak onartutako *EAEko ibaiak eta errekek antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldatetako uholdeen prebentzioari buruzko araudi berezia, eta 1/2016 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, hainbat plan hidrológico berrikustea onartzen duena, besteak beste, Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren alderdi espainiarrekoa*. Era berean, kontuan hartu beharko da 20/2016 Errege Dekretuaren bidez onartutako *Uholde Arriskuaren Plan Estrategikoa 2015-2021*. Bestalde, higadura prozesuek eragindako eremuei dagokienez, hasierako dokumentuak arrisku hori duten inguruneen azterketa bat gehitzen du, eta hori ingurumen azterketa estrategikoari erantsi beharko zaio. HAPOk berak baldintzatzaile gainjarri berezi bat zehazten du: *Eremu higagarriak*. Baldintzatzaile gainjarri horretarako erabilera araubideak kontuan hartuko ditu nekazaritzari eta basogintzari buruzko LAPeko 56 eta 72, artikuluetan ezarritako erabilera jarraibideak.

5.- LURZORU URBANIZAEZINA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

HAPOk, lurzoru urbanizaezinari dagokionez, naturako eta nekazaritzako baliabideen erabilera iraunkorra bermatuko duen antolamendua ezarri behar du; eta horrek, gainera, babes egokia eman behar die baliotsuenak edota urrakorrenak diren elementuei. Antolamendu horretan udalerriko lurzoru urbanizaezin guztirako erabilera eta jarduerak arautuko dira, eta horretako Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetan eta Nekazaritza eta basogintzako Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako antolaketa kategoriak esleituko dira.



Lurzoru urbanizaezina kategoriatan banatzeko, eremu bakoitzaren ezaugarriak, eremu horien harrera gaitasuna, eta hartzen dituzten natura baliabideen urrakortasuna eta balioa hartuko dira oinarritzat. Antolaketa horretan aintzat hartu beharko dira txosten honen aurreko 5. puntuari aipatutako alderdi desberdinak (Nekazaritza eta Basogintzako Lurraldearen Arloko Planaren arabera *Babes Bereziko* kategoriatan eta "*Balio Estrategiko Handiko*" nekazaritza eta abeltzaintzako kategoriatan. Horiek erregularizatzerakoan kontuan hartuko dira Nekazaritza eta Basogintzako LAPean jasotako Erabilerak eta Jarduerak Arautzeko Matrizean kategoriatan horiei buruz ezarritako erabilerak.

Era berean, finkatu beharko dira lurzoru hiritarrezinean onargarriak diren jarduerak eta instalazioak kokatzeko eta garatzeko baldintzak, bai HAPOn araudian bertan bai horren inguruko ordenantza erregulatuak bereziak prestatuz eta onartuz. Bestek beste, honako alderdi hauek erregulatuko dituzte: hondakin uren bilketa eta tratamendu egokia, obren eta eremu narriatuaren paisaia-baldintzen lehengoratzeta, pistak egitea, egiturak paisaian integratzea, heskaien zaintza eta landa-eremuaren zein naturaren ingurumen baldintzak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren beste alderdi batzuk.

6.- HIRI-LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAGARRIA ANTOLATZERAKOAN AINTZAT HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK

Txosten honen 3. apartatuan aipatutako helburu eta irizpideekin bat etorriz, hiri eremuak antolatzerakoan eta, halakorik izanez gero, sektore urbanizagarri berriak mugatu eta antolatzerakoan, honako gomendio hauei jarraituko zaie:

- A. HAPOn aurreikusitako hirigintza jarduerak, proportzionaltasun irizpideak kontuan hartuta egikarrituko dira, eta une bakoitzean benetan dauden premietara egokituko dira, lurzoruaren gehiegizko kontsumoa eta bigarren etxebizitzaren sustapena saihestuz.
- B. Eraikinen iraunkortasuna ziurtatzeko eta bizitegirako eta jarduera ekonomikoetarako eremuen ingurumen kalitatea bermatzeko ahalegina egingo da; hori horrela, bai eraikuntza eta urbanizazio ordenantzetan, eta bai eremu eta sektore horien hirigintza fitxen antolamendu xehatuan, honako helburu hauek lortzera bideratutako irizpideak eta baldintzak jarriko dira:

- Hiri eremuak eta zona urbanizagarriak naturaren arriskuen mende egon daitezen ekiditea.
- Zaratarentzako kalitate akustikoaren helburuak betetzea, 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, ezarritakoak.
- Eraikin berrien efizientzia energetikoa bermatzea, eraikinen orientazioa une oro kontuan hartuz eraikinaren portaera energetikoa hobetzeko, eguzki-argia hobeto aprobetxatzeko, isolamendu termikoa areagotzeko, eta abar. Era berean, eraikin berriek energia berriztagarriak (eguzki-energia, eolikoa, ...) sortzeko aukerak baliatzeko modua bilatuko da. Ildo horretan, eta Eraikuntzako Kode Teknikoak dioenarekin bat etorriz, ur bero sanitarioa hornitzeko edota berokuntzarako, eguzki-indarra bilduko duten sistemak eta metagailuak ipiniko dira.

Berokuntza banatuko sistemak ezartzeko aukera aztertuko da, energia berriztagarrien sorburuak baliatuz, ahal dela.



Esparru desberdinetako espazio publikoetan eta eraikin berrien erabilera komuneke guneetan, kontsumo txikiko argi sistemak erabiliko dira, aldi berean argi kutsadura ekidingo dutenak, hain zuzen.

- Herriko eraikin eta egitura berrien integrazio bisuala eta estetikoak sustatuko da, Amezketako herri-gunearen paisaiaren kalitatea gordeta.
- C. Area eta sektore bakoitzeko hirigintza arau berezietan ingurumen baldintzen zerrenda bat jasoko da; eta baldintza horiek derrigorrez bete beharko dira bai antolamendu xehatua eta bai urbanizazio proiektuetan. Besteak beste, urbanizazio lanak egikaritzeko aplikatu beharreko neurri babesgarri eta zuzentzaileak jasoko dituzte, eta bidezkoa denean, baita urbanizazio gastutzat jo behar diren neurri konpentsagarriak ere.

7.- INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Amezketako Udalak idatzi behar duen ingurumen azterketa estrategikoa (IAE) HAPOn osagai bat izango da. Azterketa horretan identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira plana aplikatuz etor daitezkeen eta ingurumenean eragin dezaketen inpaktu aipagarriak; eta Planaren aplikazioak ingurumenean eragin ditzakeen kalteak prebenitzeko edo minimizatzeko, teknikoki eta ingurumenaren ikuspegitik, bideragarriak diren zentzuzko hautabideak emango dira eta ingurumenaren nahiz jasangarritasunaren aldeko ekintza positiboak planteatuko dira.

Ingurumen azterketa estrategikoa, gutxienez, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du. Era berean, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ingurumen jasangarritasuneko txostenei buruz II. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izango du.

Bi eranskin horietan zehaztutako apartatuak garatzeko, txosten honen aurreko apartatuetan adierazitako alderdiak landu beharko dira; baita administrazioek, erakundeek eta gainerako interesdunek beren alegazioetan problematikotzat jo dituzten ingurumen arloko gaiak ere, halakorik izanez gero; eta segidan aipatuko ditugunak:

7.1 Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko erlazioa

Ingurumen azterketa estrategikoan, HAPOn edukia jasoko da laburtuta (edo haren aipamena egingo da), eta laburpen horretan adieraziko dira aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jardura eta zehaztapenak; baita aintzat hartu diren gainerako hautabideak ere. Era berean, planean mugatutako esparruen planifikazio xehatua egiteko aurreikusitako diren jardueren eta garapen tresnen denbora-planifikazioa ere azaldu egingo da.

Bestetik, aztertu beharko dira HAPOn horrek hiri antolaketako beste tresna batzuekin eta HAPOn lotura izan dezaketen lurralde planekin eta arloko planekin izango dituen erlazioak. Kontuan hartu beharko dira, gutxienez:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak (LAG).
- EAEko nekazaritza eta basozaintza buruzko Lurraldearen Arloko Plana.



- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sustatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko ibai eta erreka ertzak (isurialde kantauriarra) antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana, eta honen 1. aldaketa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2009-2021).
- Uholde Arriskuaren Kudeaketa Plana 2015-2021.
- Aralarko natura baliabideak antolatzeke plana.
- EAEko Ingurumenaren Esparru Programa 2020.
- Gipuzkoa Energia Foru Plana eta Euskadiko Energia Estrategia.
- Klima aldaketari aurre egiteke EAEko eta Gipuzkoako estrategiak.

Zehaztuko da zer koherentzia eta erlazioa dagoen HAPOko helburu eta jardueren, eta esparruan eragina duten plan eta programetako helburu eta xedapenen artean. Horrek, xede komunak lortzea izango du helburu, eta halaber, HAPOren barruan dauden jarduera hautabideak aztertzea, betiere gainerako programen helburuekin eta jarduketa-ildoekin ezkatutzeak, ezadostasunak edo bateraezintasunak gerta litezkeen kasuetan.

Era berean, eraginpeko eremuan aplikatu beharreko gainerako planekin sor litezkeen bigarren mailako ondorioak, metagarriak eta sinergikoak, identifikatuko dira. Era horretan identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero behintzat, planaren inpaktuak identifikatu eta ebaluatzeke atalean aztertuko dira.

7.2 Nazioartean, batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ingurumena babesteko ezarritako helburuak; eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat hartzeke moduaren justifikazioa.

IAEan azaldu egin beharke da udal antolamenduan nola txertatu diren irismen agiri honen 3. apartatuan ingurumena babesteari eta jasangarritasunari buruz adierazitako irizpideak, edota HAPO egiterakoan ezarritakoak, halakorik izanez gero. Horretarako, ahal dela behintzat, finkatutako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabilike dira.

7.3 Amezketako udalerraren ingurumen karakterizazioa eta berorren bilakaera, klima aldaketa kontuan hartuta.

Aurkeztutako hasierako agirian azaldu den informaziotik abiatuta eta irismen agiri honen 4. atalean ezarritako jarraibideak kontuan hartuta, ingurumen azterketa estrategikoak jaso beharke du Amezketako udalerraren ingurumen ezaugarrien deskribapena eta egin beharke du gaur egungo egoeraren diagnostiko oso bat. Hori horrela, beharrezko azterketa espezifikoko guztiak egingo dira, kontsultatu diren informazio iturriak eta bibliografia adieraziz eta lekuan bertan egindako lanaren eta erabilitako metodologiaren berri emanez.

Diagnostiko horretan deskribatu egingo da natur baliabideen, nekazaritzakoaren eta paisaiaren egoera, eta hiri-eremuen, industrialdeen eta landa eremuen ingurumen kalitatea; era berean, bereziki zaindu edo babestu behar diren elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerrari bizi dituen ingurumen arloko presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPOn nola eragingo duten baloratzeko, edota planak arazo horiek larriagotuko dituen aztertzeke.

Deskripzio hori ez da mugatuko ingurune fisikoaren ezaugarrietara; horrez gain, planean ezarritako antolamenduaren ondorioz nabarmen alda daitezkeen hiri-



metabolismoko alderdiei edo aldaerei buruzko informazioa eman behar du; esate baterako, ur hornidura eta saneamenduko sistemak, edo mugikortasun sistema (garraio publiko/pribatua, motorduna/motorgabea), zarata mailak, eta abar

Udalerraren egungo ingurumen egoera diagnostikatu ondoren, egoera horrek izan lezakeen bilakaeraren aurreikuspen bat egingo da, kontuan hartuta ingurumenean eragin dezaketen joera sozioekonomikoak –espero den klima-aldaketa, esaterako–. Azken faktore horri dagokionez, komeni da klima-aldaketak udalerrian eragin litzakeen inpaktuak identifikatzea eta, erabakitzea zein esparrutan jardun beharko litzatekeen aldaketa horretara egokitzeko.

Amezketako ingurumen ezaugarriak deskribatu ondoren, xehetasun handiagoz aztertuko dira HAPOn jasotako jarduera adierazgarrienak edo ondorio handienak eragin ditzaketen jarduerak ezartzeko aurreikusi diren eremu edo kokalekuak; esate baterako, hiri garapenak egikaritzeko aurreikusi diren esparruak.

Era berean, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1 artikuluan ezarritakoa betez, lurzoru horiek HAPOn jasotako aurreikuspenak hartzeko duten gaitasunaren azterketa aurkeztuko da. Horretarako, besteak beste, aintzat hartuko dira, batetik, uren administrazioak emango duen informazioa, uren jabari publikoa babesteari buruz, eta eskaera berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur baliabideei buruz; eta, bestetik, errepideen eta lehendik badauden gainerako azpiegituren gaian eskumena duten administrazioek egindako txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan ditzaketen erasanei buruz.

Atal horretan, oinarritzat hartuko da agiriari azkenean erantsiko zaizkion gai guztiei buruzko kartografia –eskala egokian egina–.

7.4 Hautabideak aukeratzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidea aukeratzeko arrazoiak.

Ingurumen azterketa estrategikoak, gainera, jaso behar du HAPOn helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izan daitezkeen hautabide guztien ingurumen arloko azterketa bat. Horretan, aztertutako hautabide bakoitzak ingurumenean izan lezakeen eragina ebaluatuko da, eta zehaztuko da planaren helburuei zenbateraino erantzungo zaien, ingurumen arloko helburuei bereziki.

Hori horrela, azterketaren esparruan dauden ingurumen arloko elementu eta arazo nabarmenak identifikaturik, eta ingurumena babesteko helburuak ezarri ondoren, HAPO garatu ahal izateko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki, eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren hautabideak proposatu beharko dira. Horien artean, "0 hautabidea" sartu beharko da derrigorrez; hau da, udalerraren egiturazko antolamendua ez aldatzekoa. Ahal denean, konparatu egingo dira bai hirigintzako jarduerak marrazteko edo diseinatzeko aukerak bai aukera horiek gauzatzeko erabil daitezkeen kokalekuak.

Aurrerapen agiri honetan jasotako planteamenduak aintzat hartuta, hautabideen azterketa horretan jaso egin beharko dira honako analisi xehatu hauek:

- **Bizitegirako garapen berriak kokatzeko hautabideak.** Lehenik eta behin, zehaztu behar da HAPOn indarraldirako (8 urte) udalerrian beharko diren etxebizitzaren kopurua, eta kuantifikazio hori gizarte, demografia eta ingurumen alorreko parametroetan oinarrituta egingo da, betiere lurralde plangintzak kuantifikazio horri buruz ezartzen dituen mugen barruan. Ildo horretan, dokumentuan zehar, bigarren bizilekua sustatzearen aldeko apustu irmoa



egiten da, eta hori berrikusi egin beharko litzateke, izan ere, Tolosaldeko Lurraldearen Plan Partzialaren hasierako onarpenaren arabera, Amezketan ez dago horrelako etxebizitza motak eskain ditzaketen udalerrien artean. Bizitegi gaitasuna zehaztutakoan, etxebizitza horiek kokatzeko eta banatzeko hautabideen azterketa bat egingo da, aintzat hartutako etxebizitzaren kokapen eta tipologia aukera desberdinek izango duten ingurumen eragina kontuan hartuta. Hala, baztertu egingo dira baliozko ingurumen elementuen gainean (eremu babestuak) inpaktu nabarmenak sortuko dituzten eta/edo urperagarritasunagatik ondasunetan edo pertsonengan kalteak eragiteko arriskua areagotuko duten hautabideak.

- **Jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako lurzoru hautabideak.** Azterketak zehaztu beharko ditu jarduera ekonomikoetarako eta ekipamenduetarako udalerrian dauden benetako lurzoru premiak. Era berean, aztertuko da beharrezkoa ote den kanpina bezalako turismo ekipamendu bat Altunegi auzoan. Premia horiek zehaztutakoan, ikusi eta aztertu beharko dira dagoen eskaerari erantzutearren aipatutako jarduerak eta ekipamenduak kokatzeko eta banatzeko dauden aukera desberdinak, betiere jasangarritasun irizpideei jarraituz eta bazter utzita baliozko ingurumen elementuen gainean (balio estrategiko handiko nekazaritza lurrak edo eremu babestuak) inpaktu nabarmenak sortuko dituzten eta/edo urperagarritasunagatik (ikus 100 urteko itzulera aldiko uholde larriaren okupazioa Lapatza industrialdean edo Ugarten) ondasunetan edo pertsonengan kalteak eragiteko arriskua areagotuko duten hautabideak.

Hautabideak aztertzerakoan, ingurumen eta jasangarritasuneko irizpideei hobeto egokitzen zaionez, eta detektatutako premiak asetzeko, lehentasuna emango zaio dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak finkatzeari eta berritzeari, eta ez lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako areak garatzeari, batez ere balio estrategikoko nekazaritza lurretan edo eremu babestuen barruan nahiz inguruan (Aralar parkea eta Kontserbazio Bereziko Eremua) dauden areak. Era berean, aurreko Hirigintza Arauetan bizitegi erabileraerako proposatu ziren baina egikaritu ez ziren area batzuk desklasifikatuko dira, oraingo HAPOn egindako bizitegi kuantifikazioa txikiagoa denez ez baitira beharrezkoak aurreikusitako bizitegi eskaerari erantzuteko.

Era berean, hautabideen azterketan kontuan hartu beharko da proposatutako hirigintza eremuetako erabilerean barne banaketa, helburu hauekin:

- HAPOn proposatutako hirigintza eremuetan erabilera mistoak sustatzean, jarduera ekonomikoetako erabilerekin inpaktu txarrik ez eragitea bizitegi eta ekipamendu erabilerekin -zaratagatik, adibidez-.
- Ingurumen arriskuak kontuan hartzea, adibidez, alde aurretik egindako kontsultei erantzutean URA agentziak aipatutako urperagarritasun arriskuak.
- Balio agrologiko handiko lurzoruen eta interes komunitarioko habitaten (ibai ertzeko landaretza) gaineko eragina minimizatzea.

Nolanahi ere, hautabideen azterketan adierazi beharko da zein metodologia erabili den, eta zein neurritan kontuan hartu diren ingurumen alderdiak, teknikoak eta funtzionalak, eta alderdi ekonomikoak garatu behar den irizpide anitzeko azterketan. Azkenean aukeratutako hautabidea ez badator bat ingurumen balioespen onena daukan hautabidearekin, hori aukeratzeko arrazoiak behar bezala azaldu beharko dira.

Proposatutako hautabide guztien kokalekua eta ezaugarriak zehazten dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko da.



7.5 HAPOn zehaztapen eta jarduketa ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazioa eta balioespena.

Identifikatuko da eta balioetsiko da nola eragingo duten HAPOn aurreikusitako jarduerak ingurumeneko elementu desberdinetan, besteak beste honako hauetan:

- Eremu babestuak (Aralar parke naturala eta KBE). 42/2007 Legeak, abenduaren 13koak, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoak, 46.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluatu beharko da zer inpaktu izan lezakeen eremu babestu horietan Larraitz-Bidean aurreikusitako garapenak, eta zer sinergia egon litekeen area horren eta mugikide diren beste eremu batzuetan (Ergoene, Papelera eta Hirigunea) gertatutako inpaktuen artean. Era berean, horrelako ebaluaketa bat egingo da eremu babestu horri dagokionez, San Martin ermitaren inguruan aurreikusitako proposamenetarako (eremua landagune deklaratzeko eta kanpin bat jartzeko).
- Habitata eta espezie urriak edota interesgarriak.
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurak eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak.
- Ur araudiaren arabera babestutako ur masak eta eremuak.
- Paisaia.
- Hiri-ingurunearen kalitatea, zaratari edo trafikoari dagokienez.
- Giza osasuna.
- Ondare monumentala eta arkeologikoa.

Halaber, aztertu beharko da zein neurritan eragiten dien HAPOn aurreikusitakoak alderdi hauei:

- Mugikortasun eskaera.
- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa.
- Kutsatzaileak isurtzea eta hondakinak sortzea. Zentzu horretan, URA agentziak egindako txostena ikusita, balioetsi egingo dira planteatutako diren garapen berriek sortuko dituzten hondakin uren isurketak eta isurketa horiek jabari publiko hidraulikoan sortuko duten inpaktua, kontuan hartuta udalerrriak hondakin urak tratatzeko daukan gaitasuna.

Aztertutako inpaktuek jaso beharko dituzte zeharkako efektuak, metatze efektuak, efektu sinergikoak, epe laburreko, ertaineko eta luzeko efektuak, behin betiko eta aldi baterako efektuak, eta efektu positiboak eta negatiboak.

Identifikazioa eta balorazioa ez da mugatuko antolamenduaren xede den eremuaren eraldaketa fisikoak eragindako zuzeneko inpaktuetara; horrez gain, proposatutako antolamenduak eta erabileren eta jardueren erregulazioak eragindako zeharkako ingurumen inpaktua ere aurreikusi beharko dute.

Detektatutako inpaktuen garrantzia zehazteko, kontuan hartuko da 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, III. eranskinean, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, III. eranskinean xedatutakoa.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioari buruzkoak, VI. eranskineko 8. atalean zehaztutako terminologia erabiliz, identifikatutako inpaktu



bakoitzaren magnitudea eta intentsitatearen ezaugarriak zehaztu eta balioetsiko dira. Horretarako, aldez aurretik zehaztuko dira eragina behar bezala deskribatzen duten inpaktu-adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzaileak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta inpaktuari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburuak, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Era berean, balorazio horretan erabakiko da, hala egokituz gero, HAPOn barruan zeintzuk diren lurralde, hirigintza eta ingurumen arloko plangintzarekin bateraezinak diren jarduketak, edota ingurumenean ondorio kritikoak eta onartezinak sortuko dituztenak. Kasu batean zein bestean, jarduketa horiek aldatu edota baztertu egin beharko dira.

Azkenik, egokiago irizten delako, zenbait alderdiren inpaktuaren ebaluazioa prozesuaren ondorengo fase batzuetara atzeratzea erabakitzen bada, arrazoitu egin beharko da erabaki hori.

7.6 Ingurumen integrazioko neurriak.

Ingurumen txosten estrategikoak zehaztuko ditu HAPOn aurreikusitako jardueren ondorioz ingurumenarentzat adierazgarritzat jotako inpaktuak prebenitu, murriztu eta, ahal den heinean, indargabetzeko neurriak.

Halaber, HAPOn ingurumen alderdiak integratzea ez litzateke mugatu behar gerta litekeen inpaktu bati erantzuteko neurriak ezartzera; izan ere, neurri horiek osatu egin behar dira udalerriko ingurumen arazoak konpontzen lagunduko duten eta ingurumen kalitate hobea lortzen lagunduko duten neurriekin.

Beraz, Amezketako HAPOn ingurumen integrazioa ondorengo neurri mota hauek ezarriz egin behar da:

- Ingurumen alderdiak kontuan hartzea lurraldea planifikatzerakoan eta hiria diseinatzerakoan; esate baterako, lurzoru urbanizaezina antolatzerakoan, natur balioen babesa bermatzea; ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen jarduerak arautzeko ordenantzak ezartzea; garapen berriak ezartzeko, oso sentiberak ez diren kokalekuak aukeratzea, eta abar. Neurri horiek prebentziozkoak izan ohi dira (edo zuzentzaileak, lehendik badauden ingurumen arloko arazo edo inpaktu jakin batzuen kasuan), eta normalean ez dute berriazko aurrekonturik eskatzen.
- HAPOn zehaztapenak garatuko dituzten planen eta proiektuen ingurumen inpaktu negatiboak saihesteko, zuzentzeko edo konpentsatzeko neurriak. Neurri horiek egikaritze proiektuen zati bezala hartuko dira, eta ondorioz, proiektuen aurrekontuetan jaso beharko dira. Horietako asko zehaztu egin beharko dira planarekin edo garapen proiektuarekin batera. Baina, edozein kasutan ere, HAPOk neurri horiek identifikatu egin beharko ditu, horien gutxieneko karakterizazio bat egin, eta garapen planetan eta proiektuetan nahitaez jaso beharrekoak diren zehaztu. Aintzat hartu beharreko neurrien artean, eta kontuan izanda URA agentziak aurreko kontsultei emandako erantzunetan ezarri zituen jarraibideak, saneamenduaren konponbide integral bat aurreikusi beharko da, oraingo eta etorkizuneko isurien tratamendu egokia bermatzearen. Halaber, jaso beharko ditu Kutsadura Murrizteko Planaren jarduketak eta aurreikuspenak, baita kargak pixkanaka murrizteko konpromiso eta egoera desberdinak ere. Azkenik, garapen berriak abian jartzeko denbora



plangintza bat diseinatuko da, garapen horietatik sortutako isurien tratamendu egokia bermatzeko ezarriko diren neurriekin batera gauzatuko dena.

- Udaierriko ingurumen baldintzak hobetzeko jarduketak, ekologia edo paisaia hobetzera, edota eremu nahiz esparru jakin batzuetako ingurumen kalitatea hobetzera bideratuak.

Jarduketa horiek finantzatu ahal izango dira, bakoitzaren inguruabarrak eta aurrekontu baliabideak kontuan hartuta, udal aurrekontuen kargura edo dirulaguntzen nahiz beste organismo batzuekin sinatutako hitzarmenez bidez; eta, hirigintza jarduketan ondorioz galdutako kapital naturalaren konpentsazio neurrien kasuan, urbanizatzeko gastu gisa.

Mota horretako neurriak izan daitezke, adibidez, urbanizatzeko eremuetan ibilguen inguruko ibaiertzeko zonak leheneratzeko neurriak, eremu hondatuak berreskuratzekoak, konektibitate ekologikoa hobetzekoak, paisaia hobetu, habitatak lehengoratu edo biodibertsitatea sustatzeko proiektuak, etab.

Hori horrela, HAPOK, batetik, identifikatu behar ditu leheneratu beharreko kokalekuak edota ingurumen baldintzak hobetzeko garatu beharreko jarduerak, horietarako lehentasun hurrenkera bat zehaztuta; eta, bestetik, jarduera horiek gauzatzeko programa bat ezarri behar du.

Bestalde, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen ebaluazioarenak, agintzen duen moduan, ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko dira klima aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko beharrezkoak diren neurriak. Horretarako, erreferentzia modura erabil daitezke IHOBEn prestatutako gida metodologikoak.

Ingurumen integrazioko neurriak HAPOren hirigintza dokumentazioan jaso beharko dira, horien kostu ekonomikoa eta finantzaketa moduak zenbatetsi beharko dira, eta egikaritzeko plangintza bat ezarri beharko da. Era berean, garapen planetan eta proiektuetan aintzat hartu beharreko neurriak zehaztuko dira.

7.7 Ingurumena zaintzeko programa, planaren eraginei dagokienez.

Ingurumen azterketa estrategikoan jaso beharko da HAPOk ingurumenean izan ditzakeen eraginak zaintzeko programa bat, identifikatutako inpaktu garrantzitsu bakoitzaren jarraipena egin ahal izateko, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzeko eta horiek eraginkorrak izateko, baita HAPOn zehaztutako ingurumen helburuak lortzeko ere.

Horretarako, programak ondorengoei buruzko informazioa jaso beharko du aldian-aldian:

- Proposatutako ingurumen helburuen betetze maila.
- Plana martxan jartzetik eratorritako ingurumen ondorio kaltegarrien garrantzia.
- Neurri prebentibo, zuzentzaile, eta dagokionean, konpentsatzaileen ezarpena eta horien eraginkortasuna, eta neurri horiek planaren eta egikaritze proiektuen segidako garapen-dokumentuetan sartzea.
- Aurreikusi ez diren baina ingurumeko elementuetan azaldu diren ingurumen ondorio kaltegarrien identifikazioa.
- Kasuan kasuko sektorean (ura, hondakinak, zarata, kutsatuak egon daitezkeen lurzoruak, errepideak, jarduera sailkatuak, eta beste) eskumena duten



erakunde edota administrazioek bidezko baimenetan ezarritako ingurumen baldintzak betetzea, baita udal mailako baimenetan ezarritakoak ere.

Xede horri begira, ikuskapen programak honako datuak jaso beharko ditu:

- Jarraipenaren xede izango diren ingurumen sistemak, alderdiak edo aldaerak identifikatzea.
- Burutu beharreko jarraipen eta kontrol jarduerak, bakoitzaren metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna, ...) eta kronograma adierazita.
- Jarraipen horretan erabiliko diren adierazleak, bakoitzaren unitateak eta gehieneko edo erreferentziazko mailak adierazita. Adierazle modura erabili ahal izango dira agiri honetako 8. atalean iradokitakoak, edo egokitzat jo daitezkeen beste batzuk.
- Ingurumen jarraipena egiteaz arduratuko diren pertsonak edota erakundeak.
- Égin beharreko txostenen edukia eta aldizkakotasuna.
- Aurreikusitako aurrekontua.

7.8 Laburpen ez teknikoa.

Ingurumen azterketa estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta normahik ulertzeko modukoa emanez.

Laburpen horretan, honakoak jasoko dira gutxienez: HAPO egitearekin lortu nahi diren helburu orokorrak eta ingurumen alorrekoak; aztertu diren hautabideak; horietako bakoitzak ingurumenean eragingo dituen ondorioen laburpena; eta azkenean erabakitako irtenbidea edo irtenbideak aukeratzeko arrazoiak.

Laburpen horren osagarri gisa, diseinatutako neurri zuzentzaileak deskribatuko dira, eta herritarren zein administrazioen parte-hartze prozesuko ondorioak adieraziko dira.

Era berean, alderdi aipagarrien dokumentazio grafikoa erantsiko zaio.

7.9 Hautabideen eta neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsagarrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Hautabideen azterketari erantsiko zaio gutxi gorabeherako azterlan ekonomiko bat, kostu-onura eta ekonomia-finantza azterketak aintzat hartuta, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte alorreko kanpoko gastuen azterketa ere sartuta.

Atal horretan, halaber, HAPO aplikatzeak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespen edota aurrekontu banakatua jasoko da, horretatik datozen ingurumen kostuak barneratu egingo direla bermatzearen. Era berean, neurri horien finantzazio iturriak adieraziko dira, bereizita, batetik, Amezketako udal aurrekontuen kontura ordainduko direnak eta, bestetik, halakorik izanez gero, hirigintza proiektuen edo jarduketan sustatzaileek ordaindu beharrekoak.

8.- INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPEN PROGRAMAN AINTZAT HARTU BEHARREKO ADIERAZLE KUANTITATIBO EDOTA KUALITATIBOEN PROPOSAMENA



Hautabideen ingurumen ebaluaziorako eta ikuskapen programarako hautatutako adierazleak adierazle-konbinaketa bat izango dira, eta aukera emango dute cogiaztatzeko betetzen direla, alde batetik, HAPOk bere gain hartzen dituen ingurumen helburuak, eta, bestetik, plana garatzen den bitartean aurreikusitako ingurumen erasanez. Era horretan, ingurumen helburuak betetzen ez badira edo horietan aldaketak sortzen badira, neurri zuzentzaile osagarriak txertatu ahal izango dira.

Ingurumen adierazleak:

- Zehaztutako ingurumen helburuekin eta irizpideekin lotuak egon behar dute, HAPOa egiten eta ezartzen esku hartzen duten eragileei erantzukizunak finkatzen lagunduko dien benetako kudeaketa-tresna moduan funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora-serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira; haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dute, adierazle horiek lortzeko informazio-iturri askotara jo beharrik gabe.

Kontuan hartuta Amezketako udalerraren ezaugarriak eta hasierako dokumentuan jasotako planteamenduak, adierazle baliagarriak izan daitezkeen honako hauek baloratzeko balio dutenak: lurzoru kontsumoa (azalera artifisializatua), lurzoruaren eta nekazaritzako ustiategiaren gaineko eragina (nekazaritzako ustiategi kopurua, balio estrategiko handiko azalera), baso mota desberdinen eta intereseko beste habitat batzuen azalera, lurrazaleko uren kalitatea, etab.

9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 21 eta 22. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, informazio eta kontsultarako modalitateei buruz 12. artikuluan xedatutakoa betez, Amezketako Udalak, HAPO zertzeko prozeduran aurreikusitako izapideen barruan, honako jarduera hauek burutuko ditu:

- a) Ukitutako herri administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egingo die, planaren edo programaren alde aurreko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.
- b) Planaren edo programaren alde aurreko bertsioa eta ingurumen azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko ditu ikusgai, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuta, eta, gutxienez, 45 eguneko epea emango du interesdunek aztertu eta bidezko oharrak egin ditzaten.

Hori guztia egiteko orduan, ukitutako administrazio publikotzat eta publiko interesduntzat joko dira Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak irismen agiri hau egiteko kontsultatutako administrazio, entitate eta pertsonak —agiri honetako 2. atalean zehaztutakoak—, baita plana izapidetzeko prozesuan zehar Udalak identifika ditzakeen bestelako erakunde eta interesdunak ere (ukitutako lurzatien jabeak, herritar elkarteak eta abar).



10.- INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 24. eta 25. artikuluetan eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 13. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, plana edo programa behin betikoz onartu aurretik, Amezketako Udalak eskatuko dio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari igortzeko ingurumen-adierazpen estrategikoa (ingurumen-memoria 211/2012 Dekretuko terminologian). Gainera, eskaera horrekin batera ingurumen-ebaluazio estrategikoa espediente osoa aurkeztuko da, honako agiri hauek osatzen dutena:

- HAPOren hirigintza dokumentuek.
- Ingurumen azterketa estrategikoak.
- Dagokion alorreko araudiaren arabera derrigorrezkoak diren txostenen kopiek eta kontsulta zein jendaurreko informazio izapideetan aurkeztu diren alegazioen kopiek.
- Amezketako Udalak prestatutako laburpen dokumentuak, non azalduko duen nola txertatu diren planaren behin betiko proposamenean ingurumen azterketa estrategikoari eta irismen dokumenturako egokitzapenari nahiz egindako kontsulten emaitzari dagozkien ingurumen alderdiak, eta nola hartu diren aintzat.

Bestetik, baldin eta plana izapidetzen den bitartean eta kontsultak egiteko eta jendaurreko informazioa emateko izapideak bete ondoren, ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak egitea erabakitzen bada eta, edozein kasutan ere, 211/2012 Dekretuak 4. artikuluan aipatutako kasuren bat gertatzen bada, Udalak berorren berri eman beharko dio Zuzendaritza honi, eta planean edo programan aldatu diren alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa gerta litekeen dokumentazioa bidaliko dio.

Donostia, 2019ko martxoaren 4a

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: MONICA PEDREIRA LANCHAS

